


Langabezia-tasa % 10etan da, eta biztanleria landuna % 0,3 igo da 2020ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Hamar familia-etxetatik ia seitan pertsona aktibo guztiak lanean daude, aurreko hiruhilekoan baino 4.300 gehiago

Euskal AEko lan-merkatuaren 2020ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, 916.300 pertsona landun daude, aurreko hiruhilekoan baino 3.100 gehiago (+% 0,3), Eustaten datuen arabera. Urteko hirugarren hiruhilekoan 101.800 langabetu daude Euskal AEn, aurreko hiruhilekoan baino 8.600 gutxiago.

Bestalde, Euskal AEko langabezia-tasa % 10ekoa da, 2020ko bigarren hiruhilekoan baino ehuneko 0,8 puntu gutxiago. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa % 54,5ekoa da 2020ko hirugarren hiruhilekoan, eta 0,4 puntu jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatze Inkesta

Lurraldeka, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan hazi da gehien okupazioa, 1.600 landun gehiagorekin; ondoren Araban, 1.000 gehiagorekin, eta segidan Bizkaian 400 landun gehiagorekin. Hiriburuei dagokienez, Bilbon 2.800 pertsona landun gehiago daude, Donostian bezalaxe ia (2.600); Gasteizen, berriz, 1.200 gehiago daude.

Generoari dagokionez, okupazioaren hazkundera gizonen artean gertatu da, aurreko hiruhilekoan baino 4.000 landun gehiagorekin; emakume landunak, berriz, 900 gutxiago dira.

Nazionalitateari dagokionez, espainiar nazionalitatea duten landunak 1.900 gehiago dira, eta atzerriko nazionalitatea dutenak 1.100 gehiago.

Okupazioa hazi da, batez ere, zerbitzuen sektorean

Euskal AEko biztanleria landuna 3.700 pertsonatan hazi da zerbitzuen sektorean, 100 industrian eta egonkor mantendu da eraikuntzan; lehen sektorean, aldiz, 900 pertsonatan jaitsi da.

Okupazio-tasa, alegia 16-64 urteko landunen ehunekoa adin horien guztizkoarekiko, ehuneko hamarren bat igo da aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 65,7tan geratu da. Tasa hori % 69koa da gizonen artean, eta % 62,4koa emakumeen artean.

Amaitutako ikasketa-mailari dagokionez, okupazio-tasa ehuneko 0,5 puntu igo da bigarren mailako edo erdi-mailako ikasketak dituztenen artean; aldiz, ehuneko 0,3 puntu jaitsi da goi-mailako ikasketak dituztenen artean, % 81,8ra, eta 0,4 puntu jaitsi da lehen mailako ikasketak eta gutxiagokoak dituztenen artean, % 56,8raino.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasarik altuena Espainiako nazionalitatea duten pertsonena da (% 67,3), eta atzerriko nazionalitatea dutenena, berriz, % 50ekoa da.

Lurraldeetan, okupazio-tasarik altuena Gipuzkoak du, % 67,9rekin, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,3 puntu gehiago; Araba da bigarren tokian, % 65,3rekin, 0,2 puntu gutxiago; Bizkaian ehuneko 0,1 puntu igo da okupazio-tasa, eta % 64,4koa da.

1.200 gutxiago dira pertsona aktibo guztiak langabezian dauzkaten familia-etxeak

2020ko hirugarren hiruhilekoan, gutxi gorabehera, 899.300 familia-etxe daude Euskal AEn, eta horietatik heren batek ez du pertsona aktiborik; hamar familia-etxetatik ia seitan pertsona aktibo guztiak lanean daude, aurreko hiruhilekoan baino 4.300 familia gehiago; gainera, pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten familia-etxeak 31.700 dira, aurreko hiruhilekoan baino 1.200 familia-etxe gutxiago.

2020ko hirugarren hiruhilekoan langabezia-tasa % 10ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,8 puntu txikiagoa

Urteko hirugarren hiruhilekoan 101.800 langabetu daudela kalkulatu da, aurreko hiruhilekoan baino 8.600 gutxiago. Euskal AEn lan bila ari diren, lana bilatzeko kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta lanerako prest dauden pertsonak dira. Gizonezko langabeak 51.100 dira, 7.400 gutxiago; emakumezkoak 1.300 gutxiago dira, guztira 50.600 hiruhilekoan.

2020ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 10ekoa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko zortzi hamarren txikiagoa. Gizonen langabezia-tasa % 9,6koa da (ehuneko 1,3 puntu gutxiago) eta emakumeena ehuneko 0,2 puntu jaitsi da (% 10,4).

Ikasketei dagokienez, langabezia-tasaren beherakadarik handiena lehen mailako ikasketak eta ikasketa gutxiago amaituak dituztenen artean gertatu da, ehuneko puntu bateko beherakadarekin, langabezia-tasa % 12,8tan kokatuz; bigarren mailako edo erdi-mailako ikasketak eta goi-mailako ikasketak amaitu dituztenen artean, berriz, langabezia-tasa ehuneko 0,7 puntu jaitsi da, % 12,2tan eta % 6,5etan kokatuz, hurrenez hurren.

Nazionalitateari dagokionez, langabetuen kopurua 4.600 pertsonatan jaitsi da Espainiako nazionalitatea dutenen artean, 76.200 pertsonatan kokatuz. Atzerriko nazionalitatea dutenen artean 4.100 langabe gutxiago daude, 25.500 langabe izateraino.

Lurraldeen arabera, langabezia Gipuzkoan jaitsi da gehien: 6.100 langabe gutxiago dira, eta langabezia-tasa ehuneko 1,7 puntu jaitsi da (% 6,9). Bizkaian 60.700 langabetu daude, 2.500 gutxiago, eta langabezia-tasa ehuneko 0,5 puntu txikiagoa da, % 11,4raino. Araban 100 langabetu gutxiago izan dira, eta langabezia-tasa % 11,7tan kokatu da, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu gutxiago.

Hiriburuei dagokionez, langabeziak behera egin du hiriburu guztietan: Donostian, 2.000 pertsonatan; Gasteizen, 1.500etan; eta Bilbon, 700etan.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2020ko abuztuan urtaro-eraginik gabeko langabezia-tasa % 7,4koa izan da Europar Batasunean, eta % 16,2koa Espainian.

Azken urtean, landunen kopurua % 4,4 jaitsi da, eta langabezia-tasa % 9,4tik % 10era igo da

Euskal AEko biztanleria landuna % 4,4 jaitsi da 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta langabezia-tasa ehuneko 0,6 puntu igo da (% 9,4tik % 10era); beraz, 2.300 pertsona sartu dira langabezia-egoeran Euskal AEn, 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhilekoko batez besteko bazkidetuen % 97,8 lanean ari dira, LANEren irizpidearen arabera

Euskal AEn 856.100 hiruhilekoko batez besteko bazkide daudela zenbatesten da, inkesta garaian Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako bazkide. Haien arteko % 97,8 lanean ari dira Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpideen arabera, zeinak BJAk erabiltzen dituen, eta horrek 837.500 pertsona dakartza.

BJAren LANE landunen % 7,6 (69.300 pertsona) ez daude Gizarte Segurantzaren bazkidetuak, ez daudelako Euskal AEn kokatutako enpresetan, funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo bestelako egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 30,9 ez daude langabe gisa erregistraturik Lanbiden

Euskal AEn, Lanbiden erregistraturik eta hiruhilekoko batez bestekoan, 119.800 langabe daudela zenbatesten da; alegia, Euskal AEn bizi diren pertsonak eta inkestaren garaian Lanbiden erregistratuak daudenak langabe-kategoriaren batean. Haietatik % 54 langabeak dira LANEren definizioaren arabera (64.700 pertsona). BJAren LANE langabeen arteko % 30,9 ez daude erregistratuta Lanbiden langabe gisa (31.500 pertsona), baina egon daitezke enplegu-eskatzaileen beste kategoria batzuetan.

COVID-19aren eragina Euskal AEko lan-merkatuan

2020ko hirugarren hiruhilekoko biztanleriaren datuak jarduerari doakionez COVID-19aren agerpenak eta agintariek jarduera murrizteko ezarritako neurriek baldintzatu dituzte.

Biztanleria landunari edo enplegu-tasari dagokionez lortutako zifrak zenbait baliabideren erabilera masiboaren baldintzapean daude, hala nola enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteak (EABEE), jarduera aldatzen dutenak, baina ez nahitaez biztanleriaren izaera jarduerari dagokionez.

Izan ere, EABEEko egoeran dauden pertsona gehienek, % 98,6k, lanean jarraitzen dute, 3 hilabete baino lehen lanera itzultzeko asmoa dutelako edo soldataren % 50 baino gehiago kobratzen jarraitzen dutelako. Beste tresna aringarri batzuek autonomoei eragiten diete, baina ez dute jarduerarekin duten harremana aldatzen, nahitaez.

BJAk, inkesta jarraitua denez, hilabeteen arabera azterketa egiteko aukera ematen du, baita ere hirugarren hiruhilekoan lagina modu homogeneoan banatzen den 13 asteen arabera. Horrek, biltzen duen informazio kopuruarekin batera, informazio gehigarria lortzea ahalbidetzen digu, Euskal AEko lan-merkatuaren egoeraren diagnostiko hobea egiteko. Inkestaturiko pertsona bakoitzaren lan-egoerari buruz bildutako informazioa lagin-diseinuaren arabera dagokion astekoa da.

Lan egiten ez duen biztanleria landunaren ehunekoa 13 puntu murriztu da hiruhilekoan zehar, uztailera lehen astean % 21,4 izatetik iraileko azken astean % 8,4 izatera igarota

Erreferentziako astean lanik egin ez duten pertsona landunen ehunekoaren bilakaeraren azterketak emaitza esanguratsuak erakusten ditu. Urteko hirugarren hiruhilekoan, erreferentziako astean lanik egin ez duten landunen ehunekoa aurreko urteetako hirugarren hiruhilekoetan baino handixeagoa da. Azken urteetan, hirugarren hiruhilekoan, ehuneko hori % 24,7 eta % 27 artekoa zen, eta 2020ko hirugarren hiruhilekoan, berriz, % 28,5koa.

Enplegu jarraitua duten 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, erreferentziako astean lan egin zuten ala ez kontuan hartuta. Urteko bigarren hiruhilekoa (%)


	Ez zuten lanik egin	Lan egin zuten
3. hiruhilekoa 2015	24,7	75,3
3. hiruhilekoa 2016	26,3	73,7
3. hiruhilekoa 2017	25,5	74,5
3. hiruhilekoa 2018	26,7	73,3
3. hiruhilekoa 2019	27,0	73,0
3. hiruhilekoa 2020	28,5	71,5

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA)

Urteko hirugarren hiruhilekoan, enplegu jarraitua duten pertsonak erreferentziako astean lan egin duten ala ez jakiteko informazioa oporraldiaren eraginpean dago. Datua asteka aztertzen badugu, ikusten da hiruhilekoaren lehen astean lanik egin ez zuten pertsonen ehunekoa % 21,4 zela; ehuneko hori gorantz zihoan, harik eta abuztuaren erdialdean maximora iritsi arte (% 56,1), unea zeinetatik aurrera pixkanaka jaisten hasten baitzen, % 8,4ra iritsi arte.

**Enplegu jarraitua duten 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, erreferentziako
astean lan egin zuten ala ez kontuan hartuta. Asteko datuak (%).**

2020ko hirugarren hiruhilekoa



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA)

Pertsona bat langabea edo ez-aktiboa den zehazten duten enplegu-bilaketaren ezaugarrien bilakaera aztertuz gero, ikusten da nabarmen igo dela lana bilatzen ez duten pertsona ez-aktiboen kopurua (aurreko hiruhilekoan baino 7.200 pertsona gehiago); era berean, gora egin du lana bilatzen ari direla baina lanerako prest ez daudela adierazten dutenen artean (+5.600) eta lanerako prest ez dauden eta enplegua topatzeko bilaketa aktiborik egiten ez dutenen artean (+2.500). Soil-soilik jaitsi da lan bila dabiltzan baina lanerako prest egon arren aktiboki bilatzeko gestiorik egiten ez duten pertsonen kopurua (-5.300).

Biztanleria langabea eta ez-aktiboa, lana bilatzeagatik eta bilaketaren ezaugarriengatik.

Hiruhileko datua (milakotan). 2015-2020

		Langabeak	Ez-aktiboak				
			Guztira	Ez du bilatzen	Ez du kudeaketa aktiborik egiten	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri eta ez du kudeaketarik egiten
2015	1. hiruhilekoa	181,5	764,8	752,9	3,3	6,5	2,1
	2. hiruhilekoa	164,0	770,8	757,4	2,0	8,8	2,5
	3. hiruhilekoa	161,1	773,6	758,1	7,1	4,3	4,0
	4. hiruhilekoa	159,4	775,9	766,9	3,3	4,1	1,6
2016	1. hiruhilekoa	156,1	781,9	772,2	3,6	5,0	1,1
	2. hiruhilekoa	151,3	778,9	770,1	4,4	2,3	2,0
	3. hiruhilekoa	137,5	784,1	768,7	7,2	4,0	4,3
	4. hiruhilekoa	135,1	793,5	775,0	7,0	8,9	2,7
2017	1. hiruhilekoa	123,1	800,8	776,1	4,7	17,2	2,7
	2. hiruhilekoa	117,8	794,9	785,2	2,0	7,0	0,7
	3. hiruhilekoa	123,6	798,0	789,8	3,6	3,9	0,6
	4. hiruhilekoa	118,5	801,8	793,8	4,4	2,6	0,9
2018	1. hiruhilekoa	120,9	803,1	795,0	3,8	3,1	1,2
	2. hiruhilekoa	109,1	790,2	784,9	2,5	2,4	0,4
	3. hiruhilekoa	100,5	799,2	791,7	3,4	3,0	1,2
	4. hiruhilekoa	110,0	795,5	789,3	2,4	2,3	1,6
2019	1. hiruhilekoa	109,0	800,6	783,2	6,9	7,9	2,7
	2. hiruhilekoa	103,1	799,1	783,7	7,1	6,2	2,1
	3. hiruhilekoa	99,5	797,5	782,5	6,6	5,7	2,8
	4. hiruhilekoa	99,5	809,2	792,0	9,3	5,3	2,7
2020	1. hiruhilekoa	104,4	810,3	791,1	6,8	8,7	3,8
	2. hiruhilekoa	110,4	839,6	810,7	15,3	11,0	2,6
	3. hiruhilekoa	101,8	849,6	817,9	10,0	16,6	5,1

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA)

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2020/III

	2020/III	2020/II	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.867,6	1.863,3	+4,3	0,2
AKTIBOAK	1.018,0	1.023,6	-5,6	-0,5
Gizonak	532,1	535,5	-3,4	-0,6
Emakumeak	485,9	488,1	-2,2	-0,5
Araba/Álava	156,6	155,7	+0,9	+0,6
Bizkaia	530,2	532,3	-2,1	-0,4
Gipuzkoa	331,2	335,7	-4,5	-1,3
Vitoria-Gasteiz	117,7	118,0	-0,3	-0,3
Bilbao	160,4	158,3	+2,1	+1,3
Donostia / San Sebastián	80,7	80,1	+0,6	+0,7
Beste udalerriak	659,3	667,2	-7,9	-1,2
Espainiarrak	926,5	929,2	-2,7	-0,3
Atzeritarrak	91,5	94,5	-3,0	-3,2
BIZTANLERIA LANDUNA	916,3	913,2	+3,1	+0,3
Gizonak	481,0	477,0	+4,0	+0,8
Emakumeak	435,3	436,2	-0,9	-0,2
Araba/Álava	138,3	137,3	+1,0	+0,7
Bizkaia	469,5	469,1	+0,4	+0,1
Gipuzkoa	308,4	306,8	+1,6	+0,5
Vitoria-Gasteiz	104,3	103,1	+1,2	+1,2
Bilbao	140,0	137,2	+2,8	+2,0
Donostia / San Sebastián	74,7	72,1	+2,6	+3,6
Beste udalerriak	597,2	600,8	-3,6	-0,6
Espainiarrak	850,3	848,4	+1,9	+0,2
Atzeritarrak	66,0	64,9	+1,1	+1,7
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	7,8	8,7	-0,9	-10,3
Industria	198,2	198,1	+0,1	+0,1
Eraikuntza	49,8	49,8	+0,0	+0,0
Zerbitzuak	660,4	656,7	+3,7	+0,6
Soldatakoak	746,7	741,8	+4,9	+0,7
- Kontratu mugagabea dutenak	526,3	525,2	+1,1	+0,2
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	220,3	216,5	+3,8	+1,8
Ez soldatakoak	169,6	171,5	-1,9	-1,1
LANGABEAK	101,8	110,4	-8,6	-7,8
Gizonak	51,1	58,5	-7,4	-12,6
Emakumeak	50,6	51,9	-1,3	-2,5
16 - 24	14,4	12,7	+1,7	+13,4
25 - 44	51,1	59,3	-8,2	-13,8
45 eta gehiago	36,3	38,4	-2,1	-5,5
Araba/Álava	18,3	18,4	-0,1	-0,5
Bizkaia	60,7	63,2	-2,5	-4,0
Gipuzkoa	22,8	28,9	-6,1	-21,1
Vitoria-Gasteiz	13,4	14,9	-1,5	-10,1
Bilbao	20,3	21,0	-0,7	-3,3
Donostia / San Sebastián	6,0	8,0	-2,0	-25,0
Beste udalerriak	62,0	66,4	-4,4	-6,6
Espainiarrak	76,2	80,8	-4,6	-5,7
Atzeritarrak	25,5	29,6	-4,1	-13,9
EZ-AKTIBOAK	849,6	839,6	+10,0	+1,2
ETXEBIZITZAK	899,3	898,7	+0,6	+0,1
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	599,2	598,6	+0,6	+0,1
- Guztiak okupatuak	521,9	517,6	+4,3	+0,8
- Guztiak langabeak	31,7	32,9	-1,2	-3,6
Aktiborik gabeko etxebizitzak	300,1	300,1	+0,0	+0,0

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskaratu dira urte horretako urtarillaren oinarri 1etik aurrera (76) gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2020/III

	2020/III	2020/II	Aldakuntza, aurreko hiru hilekoaren aldean (e.p. *)
JARDUERA-TASA	54,5	54,9	-0,4
Gizonak	59,3	59,8	-0,5
Emakumeak	50,1	50,4	-0,3
Araba/Álava	56,5	56,4	+0,1
Bizkaia	54,0	54,3	-0,3
Gipuzkoa	54,4	55,3	-0,9
Vitoria-Gasteiz	56,6	57,0	-0,4
Bilbao	54,0	53,5	+0,5
Donostia / San Sebastián	51,4	51,2	+0,2
Beste udalerriak	54,7	55,4	-0,7
Espainiarrak	53,5	53,8	-0,3
Atzeritarrak	67,1	69,7	-2,6
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	65,7	65,6	+0,1
Gizonak	69,0	68,5	+0,5
Emakumeak	62,4	62,7	-0,3
Araba/Álava	65,3	65,5	-0,2
Bizkaia	64,4	64,3	+0,1
Gipuzkoa	67,9	67,6	+0,3
Vitoria-Gasteiz	65,7	65,6	+0,1
Bilbao	63,8	63,0	+0,8
Donostia / San Sebastián	65,6	64,0	+1,6
Beste udalerriak	66,1	66,4	-0,3
Espainiarrak	67,3	67,3	+0,0
Atzeritarrak	50,0	49,3	+0,7
LANGABEZIA TASA	10,0	10,8	-0,8
Gizonak	9,6	10,9	-1,3
Emakumeak	10,4	10,6	-0,2
16 - 24	28,6	27,2	+1,4
25 - 44	11,3	12,8	-1,5
45 eta gehiago	7,0	7,5	-0,5
Araba/Álava	11,7	11,8	-0,1
Bizkaia	11,4	11,9	-0,5
Gipuzkoa	6,9	8,6	-1,7
Vitoria-Gasteiz	11,3	12,6	-1,3
Bilbao	12,7	13,3	-0,6
Donostia / San Sebastián	7,5	10,0	-2,5
Beste udalerriak	9,4	10,0	-0,6
Espainiarrak	8,2	8,7	-0,5
Atzeritarrak	27,9	31,4	-3,5
EZ-AKTIBOTASUN TASA	45,5	45,1	+0,4

*e.p. = Aldea, ehunekotan

horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62